

Terrorismoaren apologia

Mikel Soto

2011ko Apirilaren 01a

Esango nuke jaki bat platerean paratu eta bazkaltiarrengana bidali aurretik begiratzen duenaren begirada berdinarekin begiratzen diegula editoreok argitaratzen ditugun liburuei. Izan ere, beste edozein artisauk egiten duen lanarekin alderik badago, esango nuke gure lanaren lehengai dagoela; ideiak baitira. Eta, ideiak ez dira lanarekin eta sardexkarekin jatekoak; V maskaratuak dioen bezala, balen kontra babestuak daude. Ideiek mundua aldatzen dute eta, batzuetan, hein txiki batean, liburuek ere bai. Editore bezala zuzentzen dudan Amaiur bilduma bizitza aldatu zidan liburu batekin hasi zen, Bobby Sandesen «Egun bat nire bizitzan». Eta inori bizitza aldatuko dion liburu bat argitaratuko dudala pentsatzea da egunero lanera eramaten nauen arrazoietako bat.

Aurreko udan, Iruñeko taberna batean, Diana J. Torresen «Pornoterrorismo» liburua izango zenaren lehen bertsioa irakurtzen ari nintzela, liburu horrekin norbaiti bizitza aldatuko niolako ustea izan nuen. Aspaldi ez ninduen ezerk hainbeste inpresionatu. Diskurtsoaren erradikalitasunak eta Itziar Zigak ohartarazi ninduen arte ikusteko gai izan ez nintzen neurritz kanpoko inozentzia batek koktel lehergarri bihurtzen dute liburua. Askatasunaren aldarrikapen erabatekoa, pribatua publiko bihurtzeko saiakera, atzera ikasteko deia, sistemaren hizkeraz jabetzeko asmoa... dena hankaz gora jarri eta harago joateko saiakera da pornoterrorismoa.

Duela bi urteko sanferminetako GARAKo kolaborazioan, eztabaida mahaigaineratu nuen: ipurtzulotik coca-cola botilak sartzea iraultzailea ote da? Gaur, Dianaren laguntzaz, badela aldarrikatzera nator. Haren lanean azaltzen den Manolok (<http://hazteunmanolo.blogspot.com>), bete-betean asmatzen du: «Askatasunaren erabilpen arduratsuak egia zabaltzen du, eta batzuetan, askatasuna orgasmikoki subertsiboa da». Gehienetan uste dugunaren kontra, askatasunak egia zabaltzen du, eta ez aldrebes. Eta, gure askatasunak, sinetsarazi nahi diguten baino askoz gutxiagotan egiten du talka hurkoarenarekin.

Horregatik, bada garaia dena zalantzan jarri eta atzera ikasten hasteko. Ikastolan, adibidez, irakasten digute sexua sarketarekin egiten dugun lehen aldiak mingarriak izan daitezkeela, baina denborarekin gozagarri bihurtzen direla. Ez dut ulertzen zergatik ez diguten gauza bera irakasten beste sexu-praktikei buruz. Inork ez du sarketa baztertzen behin gaizki pasatu zuelako. Entsegu-errore dinamika zientifikoa hobesten dugu sexu heteronormatiboa egiteko, ez besterik. Bestelakoak norberak ikasi behar ditu, ahal dela isil eta ilunean. Horietako batzuk oraindik ere gaixotasun direlako, psikiatriaren arabera.

Ohearen adostasun eta konplizitatean, zartadak eman eta hartu ditut; lotu egin dut eta lotu egin naute; atzetik eman dut eta atzetik eman didate; inoren gainean txiza egin eta txiza parrastada jaso dut; aldi berean pertsona batekin baino gehiagorekin oheratu naiz... Urteekin, nire askatasunaren mugak ikusi ditut. Zein estu edo zabal diren ikasi dut. Blake poetak zioen bezala: «Demasiaren bideak Jakinduriaren Jauregira darama, zeren zuk ez baitakizu inoiz zer den aski, aski baino gehiago zer den jakin arte». Eta nire demasiak eta askiak ikasten jarraitzen ditut. Nire askatasunaren erabilpen arduratsuak nire egia zabaltzen duelako, baita mundu honen egia ere.

Dianak, azalpen bila edo, bere askatasunaren iturburua gurasoek eman zioten hezkuntza hippyan dagoela uste du. Horren adibide gisa, bere etxean aterik ez zegoela kontatzen du, eta barre artean aitortu zigun 12 urterekin bere diruarekin erosi zuen lehen gauza bere logelarentzako ate bat izan zela. Hunkigarria iruditzen zait gu guztion irudimenaren ateei ostikada bat ematera etorri den haur hori bere etxeraino atetzar bat arrastaka eramaten imajinatzea.

Berak bezala, Veronicak ere, bizitza atea zabalik dituen kartzela dela idatzi zuen. Eta atea, batzuetan, zabaltzeko beharrean, apurtzeko dira.